## ELGOIBARKO UDALA

*Iragarkia*

Berdintasunaren aldeko Elgoibarko Emakumeen Kontseilua arautzen duten Estatutuen hasierako onarpena argitaratu ondoren, eta 7/1985 Legearen 49.c artikuluan zehazten den legezko epean jendaurrean egon eta inolako erreklamaziorik egon ez denez, behin betiko onartutzat jotzen da.

Ondorioz, eta Toki Jaurpidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan jasotakoari jarraiki, aipaturiko Ordenantza osorik argitaratuko da.

Elgoibar, 2013ko ekainaren 18a.—Alfredo Etxeberria Murua, Alkatea. (6188)

### BERDINTASUNAREN ALDEKO ELGOIBARKO EMAKUMEEN UDAL KONTSEILUA

Aginte publikoen zeregina da herritar guztiei, politikan, ekonomian, kulturan eta gizartean parte hartzeko aukerak ematea.

Tokiko araubidearen araudiak aurreikusten duenez, udal bakoitzak egoki irizten dion organo osagarriak sortzeko aukera du, herritarrek udalaren jardueran eta antolamenduan duten partaidetza sustatzeko; izan ere, Udalaren zeregin edo xede nagusia da, herritarrek eta elkarteek, udalaren gaietan duten partaidetza bieratzea, Kontseilu Sektorialetan gertatzen den bezalaxe.

Horretaz gain, 2008-2011rako onartu zen eta 2012 urtean luzatu zen Elgoibarko I. Berdintasun Plana inplementatzeko ezarri diren neurrien artean, emakumeen partaidetzarako organo baten sorrera jasotzen dela.

Halaber, gomendio hau Udalaren 2011-2015eko Legealdi Planean jasota dago.

Aldi berean, 2012 urtean zehar eta 2013 urte hasieran, hainbat bilera egin dira udalerriko emakume taldeekin, Elgoibarko Emakumeen Kontseiluko estatutuei buruzko proiektua adosten joateko.

Hausnarketa eta eztabaida prozesu bat burutu ostean, Berdintasunaren aldeko Elgoibarko Emakumeen Udal Kontseiluaren funtzionamenduaren Estatutuei buruzko proposamena adostu da.

Arestian aipatutako legedia oinarritzat hartuta, eta emakumeak gizartean duen zeregina sendotzeko, emakumea gizartean osoki integratzeko eta emakumeak herri politikan duen partaidetza eta lankidetza areagotzeko, Berdintasunaren aldeko Elgoibarko Emakumeen Udal Kontseilua sortzea proposatzen da, herritarren partaidetzako foro gisa.

*1. artikulua. Definizioa.*

Elgoibarko Emakumeen Berdintasunerako Udal Kontseilua udalerriko emakumeen eta Udalaren arteko ordezkaritza, partaidetza eta elkarrizketa organoa da. Organo hau ez da loteslea izango, eta aholkuak eta informazioa emango ditu udalerriko emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko bideratu behar diren herri politiken inguruko erabakiak hartu ahal izateko.

Kontseiluak, era berean, emakumeen elkarteek burutzen dituzten jardueren eta Udalaren arteko koordinaziorako gune izan beharko du. Bertan, emakumeak baliozko solaskidetzat hartuko dira, Udalaren herri politikak diseinatzeko, inplementatzeko eta ebaluatzeko orduan. Politika horiek ondorengoak izango dira: Emakumeek gizartean dituzten baldintzak eta lekua hobetzeko zuzenean bideratzen direnak, nahiz, beste esparru batean kokatuta egonik, gizonen eta emakumeen arteko botere harremanetan eragina dutenak.

## AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR

*Anuncio*

Habiendo sido publicada la aprobación inicial de los Estatutos reguladores del Consejo Municipal de Mujeres de Elgoibar por la Igualdad y no habiéndose producido reclamación alguna en el plazo legal de exposición pública, de conformidad con lo estipulado con el artículo 49.c de la Ley 7/1985, se entiende definitivamente aprobada.

En consecuencia, se procede a la publicación íntegra de la citada Ordenanza, conforme a lo previsto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Elgoibar, a 18 de junio de 2013.—El Alcalde, Alfredo Etxeberria Murua. (6188)

### CONSEJO MUNICIPAL DE MUJERES DE ELGOIBAR POR LA IGUALDAD

Corresponde a los poderes públicos facilitar la participación de toda la ciudadanía en la vida política, económica, cultural y social.

La normativa de régimen local, prevé la posibilidad de que cada municipio cree los órganos complementarios que crea oportunos a fin de fomentar la participación ciudadana en la vida y organización municipal y cuya misión o fin esencial es la de canalizar la participación de la ciudadanía y de sus asociaciones en los asuntos municipales, tal y como ocurre en el caso de los Consejos Sectoriales.

Por otro lado, en el I Plan de Igualdad de Elgoibar 2008-2011, prorrogado durante el año 2012, se recoge entre las medidas para la implantación del plan, la creación de un órgano de participación de mujeres.

Esta recomendación está así mismo recogida en su Plan de Legislatura municipal 2011-2015.

Durante el año 2012 y comienzos de 2013, se han celebrado varias reuniones con los grupos de mujeres del municipio, a fin de ir consensuando un proyecto de estatutos del Consejo de Mujeres de Elgoibar.

Tras un proceso de reflexión y debate, se ha consensuado una propuesta de Estatutos de funcionamiento del Consejo Municipal de Mujeres de Elgoibar por la Igualdad.

Sobre la base de la legislación anteriormente citada y en busca de la consolidación del papel de la mujer en la sociedad, su plena integración en la misma, así como su participación y colaboración en el desarrollo de las políticas públicas, se propone la creación del Consejo Municipal de Mujeres de Elgoibar por la Igualdad, como foro de participación ciudadana.

*Artículo 1. Definición.*

El Consejo Municipal de Mujeres de Elgoibar por la igualdad es un órgano de representación, participación e interlocución entre las mujeres del municipio y el Ayuntamiento, de carácter asesor e informativo, no vinculante para la toma de decisiones sobre las políticas públicas destinadas a la consecución de la igualdad efectiva de mujeres y hombres en el ámbito local.

El Consejo debe ser también un espacio de coordinación de la actividad de las asociaciones de mujeres con el Ayuntamiento, donde se las reconozca como interlocutoras válidas a la hora de diseñar, implementar y evaluar las políticas públicas municipales, tanto las que se dirigen exclusivamente a mejorar la condición y posición de las mujeres en la sociedad, como aquellas que, enmarcadas en otros ámbitos, ejercen influencia sobre las relaciones de poder entre unas y otros.

*2. artikulua. Xedea.*

Ondoren zehaztuko direnak lortzeko baldintzak betetzen direla zaintzea.

— Udalerriko emakumeen partaidetza demokratikoa bermatzea.

— Udalerriko jarduera politikoan, kulturalean, ekonomikoan eta sozialean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bideratzea eta bultzatzea.

*3. artikulua. Helburuak.*

— Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko bideratzen diren herri politikei buruzko erabakiak hartzerako orduan aholkua ematea eta eragitea.

— Emakumeen mugimenduari zor zaion gizartearen aitorpena bultzatzea.

— Esparru guztietan benetako parte-hartzea bultzatzea eta emakumeen eskubideak defendatzea.

— Udal zerbitzuek eta politikek gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzen dutela gainbegiratzea.

*4. artikulua. Funtzioak.*

1. Dituen helburuak betetzeko Elgoibarko Emakumeen Berdintasunerako Udal Kontseiluak ondorengo funtzioak izango ditu:

a) Udalaren politika bideratzea, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko.

b) Aukera berdintasuna lortze aldera, udal jarduera-planak bultzatzea eta plan horien jarraipena egitea.

c) Jarduera lerro orokorrak zehazterako orduan eta aurrekontuko lehentasunak ezartzerako orduan Tokiko Administrazioari aholkua ematea.

d) kontseiluan parte hartzen ez duten pertsonek edo taldeek proposatutako iradokizunak eta ekimenak jasotzea. Aukera berdintasuna bultzatzeko ideia berritzaileak sustatzea.

e) kontseiluari aditzera ematen zaizkion jarrera diskriminatzaileen salaketa guztiak, behar bezala oinarrituta daudenak, jasotzea eta organo eskudunei bideratzea, baldin eta jarrera horiek berdintasun printzipioa urratzen badute edo emakumeak iraintzen badituzte.

f) Emakumeen sustapenerako jarduerak bideratzen dituzten elkarteen eta gainerako erakundeen arteko partaidetza, lankidetza eta kooperazioa bultzatzea.

c) kontseiluko kideak onartzea edo kontseilutik kanpo lagatzea.

2. Udalak, ahal duen neurrian eta beharrezkoa den heinean, beharrezkoak diren baliabideak jarriko ditu Kontseiluaren funtzioak betetzeko eta funtzionamendua behar bezalakoa izateko.

*5. artikulua. Osaera.*

1. Elgoibarko udalerriko emakumeak bakarrik izango dira Kontseiluko kideak.

2. Kontseilua mistoa izango da: Emakumeek, emakumeen elkarte baten izenean edo norberaren izenean jardun ahal izango dute. Erakunde mistoetako kide diren emakumeen partaidetza ere aurreikusita dago.

— Emakumeen elkarteak edo taldeak.

— Aukera berdintasunaren alde diharduten elkarteak edo taldeak.

*Artículo 2. Finalidad.*

Velar por que se den las condiciones para:

— Garantizar la participación democrática de las mujeres del municipio.

— Desarrollar y promover la igualdad entre hombres y mujeres en la actividad política, cultural, económica y social municipal y en la vida cotidiana.

*Artículo 3. Objetivos.*

— Asesorar e influir en la toma de decisiones sobre las políticas públicas destinadas a la consecución de la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

— Fomentar el reconocimiento social debido al movimiento de mujeres.

— Fomentar la participación efectiva en todos los ámbitos y defender los derechos de la mujer.

— Supervisar que los servicios y políticas municipales garantizan la igualdad entre hombres y mujeres.

*Artículo 4. Funciones.*

1. Para el cumplimiento de sus fines corresponde al Consejo Municipal de Mujeres de Elgoibar por la igualdad desarrollar las siguientes funciones:

a) Orientar la política municipal con el objetivo de conseguir la igualdad entre hombres y mujeres.

b) Impulsar la elaboración de planes municipales de actuación hacia la igualdad de oportunidades, realizar seguimiento del mismo.

c) Asesorar a la Administración local en la definición de las líneas de actuación generales, así como en la determinación de las prioridades presupuestarias.

d) Recoger las sugerencias e iniciativas propuestas por personas o colectivos no participantes en el consejo. Promover ideas innovadoras para impulsar la igualdad de oportunidades.

e) Recoger y canalizar a los órganos competentes cuantas denuncias de conductas discriminatorias, debidamente fundamentadas, lleguen a conocimiento del consejo, siempre que estas violen el principio de igualdad o denigren a las mujeres.

f) Impulsar la participación, así como la colaboración y cooperación entre asociaciones y demás entidades que lleven a cabo actividades de promoción de la mujer.

g) Acordar la admisión/cese de las miembros del consejo.

2. El Ayuntamiento facilitará en la medida que se estime posible y necesario, los medios oportunos para el cumplimiento de sus funciones y su adecuado funcionamiento.

*Artículo 5. Composición.*

1. Podrán ser miembos del Consejo, solamente mujeres del municipio de Elgoibar.

2. El Consejo será de tipo mixto: Las mujeres participan en nombre de una asociación de mujeres o a título individual. También se contempla la participación de mujeres miembros de organizaciones mixtas:

— Asociaciones o grupos de mujeres.

— Asociaciones o grupos que trabajen a favor de la igualdad de oportunidades.

— Beraien jardueretan aukera berdintasuna sustatzen duten elkarteak edo taldeak.

— Norbanako bezala, berdintasunaren gaiaren inguruan sentiberatasun edo prestakuntza berezia duten emakumeak, edo horrekin zerikusia duten jarduerak egiten dituztenak.

— Sindikatuetako ordezkari diren emakumeak.

— Elkarte mistoetako ordezkari diren emakumeak (Elkarte sektorialak, gurasoenak, auzotarrenak, kirol arlokoak, kultur arlokoak), eta udalerria ordezkatzen duten erakundeetan parte hartzen dutenak.

3. Alderdi politikoek ezin izango dute parte hartu.

4. Une jakinetan, adituek, gizon zein emakumeek, parte hartu ahal izango dute, gai zehatzak aztertu ahal izateko.

*6. artikulua. Kontseiluan sartzea.*

1. Arestian aipatutako entitateek eta erakundek Kontseiluan parte hartu ahal izango dute. Horretarako, Kontseiluko idazkariari eman beharko diote horren berri, eta Kontseiluko Lehendakaritzari idatzizko eskaera helaraziko diote. Bertan, ondorengo datuak zehaztuko dira, erakundea identifikatu ahal izateko.

a) Entitatearen, elkartearen edo erakundearen izena.

b) Hala badagokio, elkartearen edo entitatearen estatutuak.

c) Hala badagokio, sozietatearen egoitza edo bazkide kopurua.

d) Entitatearen, elkartearen edo erakundearen helburuak.

e) Harremanetarako datuak.

2. Emakume guztiek, norbanako gisara, Kontseiluan parte hartzea eskatu ahal izango dute. Horretarako, Kontseiluaren idazkariari eman beharko diote horren berri, eta Kontseiluaren Lehendakariari idatzizko eskaera helarazi beharko diote. Bertan, ondorengo datuak jarri beharko dituzte.

a) Izen-deiturak.

b) Harremanetarako datuak.

c) Parte hartzeko arrazoiei buruzko azalpena.

*7. artikulua. Kontseiluko kide izateari lagatzea.*

Ondorengo arrazoiak tarteko Kontseiluko kide izateari lagako zaio.

— Partaidearen eskariz.

— Elkartea edo taldea desagertu egin delako.

— Kontseiluan parte hartzen duten pertsonen ustetan, partaideak eskatutako baldintzetakoren bat betetzen ez badu.

— Idazkaritzari aditzera eman gabe, hiru aldiz jarraian huts egitea.

*8. artikulua. Funtzionamenduaren egitura.*

— Lehendakaritza:

Lehendakariak Kontseiluaren ordezkaritza gorena izango du. Lehendakaritza Berdintasun arloko ardura duen zinegotziaren esku geldituko da. Lehendakaritza Lehendakariordearekin partekatuko da.

Udaleko talde politikoei eskatuko zaie emakume bat izenda dezatela Berdintasun Zinegotzi gisa.

Hona hemen Lehendakariaren atribuzioak:

— Ordezkaritza funtzioak: Kontseilua udalerriaren aurrean ordezkatzea.

— Asociaciones o grupos que promuevan la igualdad de oportunidades en su actividad.

— Mujeres a título individual tenganuna especial sensibilidad y formación respecto al tema de la igualdad y/o desarrollen actividades relacionadas con la misma.

— Mujeres representantes de sindicatos.

— Mujeres representantes de Asociaciones míxtas (Asociaciones sectoriales, de padres y madres, vecinales, deportivas, culturales) e instituciones representativas del municipio.

3. No se admitirá la participación de los partidos políticos.

4. Puntualmente se admitirá la participación de expertos tanto hombres como mujeres, con objeto de ilustrar temas concretos.

*Artículo 6. Incorporación al consejo.*

1. Las organizaciones y entidades a las que se refiere el artículo anterior, podrán formar parte del Consejo comunicándoselo a la secretaria del Consejo mediante solicitud por escrito dirigida a la Presidencia del mismo, aportando los siguientes datos a efectos identificativos:

a) Nombre de la entidad, asociación u organización.

b) En su caso, estatutos de la asociación o entidad.

c) En su caso, domicilio social y número de socias.

d) Objetivos de la entidad, asociación u organización.

e) Datos de contacto.

2. Cualquier mujer a título individual, podrá solicitar su participación en el Consejo comunicándoselo a la secretaria del Consejo mediante solicitud por escrito dirigida a la Presidencia del mismo, aportando los siguientes datos:

a) Nombre y dos apellidos.

b) Datos de contacto.

c) Explicación de los motivos para participar.

*Artículo 7. Cese en la participación en el consejo.*

Se dejará de formar parte del Consejo por las siguientes razones:

— A solicitud de la persona partícipe.

— Por disolución de la asociación o grupo.

— Si en opinión de las personas participantes en el Consejo, no se cumple alguna de las condiciones que se piden a sus integrantes.

— Por falta reiterada de asistencia, tres veces consecutivas sin avisar a Secretaría.

*Artículo 8. Estructura de funcionamiento.*

— La Presidencia.

La presidenta ostenta la máxima representación del Consejo. La presidencia recaerá sobre la concejala responsable de Igualdad. Será una presidencia compartida con la Vicepresidenta.

Se instará a los grupos políticos municipales para que se designe a una mujer como titular de la Concejalía de Igualdad.

Sus atribuciones serán:

— Funciones representativas: Representar al Consejo ante el municipio.

— Kontseiluaren bileretako deialdiak egitea eta bileren buru izatea.

— Udalaren organigramari jarraiki, Emakumeen Mahaiak egindako proposamenak dagokion Batzorde informatzaileari helaraztea.

— Kontseiluari proposamenen bilakaerari buruzko informazioa ematea.

— Eztabaidak bideratzea eta gidatzea.

— Lehendakariordetza:

Kontseiluko partaide bat izango da, Kontseilua osatzen duten kideen artetik aukeratutakoa (elkarteren bateko kidea edo norbanako gisara parte hartzen duen pertsona). Kontseiluak urtero egin edo berrituko du izendapena, aho batez edo gehiengo sinple bidez.

Funtzioak:

— Kontseilua udalerriaren aurrean ordezkatzea, baldin eta lehendakariak funtzio hori bete ezin badu edo Kontseiluak funtzio hori elkarrekin betetzea erabakitzen badu.

— Kontseiluaren bileretako deialdiak egitea eta bileren buru izatea, baldin eta lehendakariak funtzio hori bete ezin badu.

— Bilera deiak prestatzea eta bidaltzea, baldin eta idazkariak funtzio hori bete ezin badu.

— Bileren akta egitea, baldin eta idazkariak funtzio hori bete ezin badu.

— Eztabaidak bideratzea eta gidatzea, baldin eta beharrezkoa bada eta lehendakariak funtzio hori bete ezin badu.

— Gaia edo egoera dela medio beharrezkoa baldin bada, Udalaren organigramari jarraiki, Kontseiluaren proposamenak dagokion Batzorde Informatzaileari helaraztea eta proposamenak Batzordean defendatzea.

— Idazkaritza.

Idazkaritza arloko udal teknikariaren esku egongo da. Idazkaritzak ondoko funtzioak izango ditu:

a) Bilera deiak egitea eta bidaltzea.

c) Kontseiluaren bileren akta egitea eta akordioei buruzko egiaztagiria egitea.

c) Kontseiluko kideen eta ordezkarien Erregistroa eguneratuta izan beharko da, baita altak eta bajak ere.

d) Horretaz gain, arloko teknikari bezala dituen funtzioak beteko ditu.

— Elkarteen eta Erakundeen ordezkariak.

Elkarte edo erakunde bakoitzeko bi emakumek parte hartu ahal izango dute.

Kontseiluan parte hartzeko ondokoak bete beharko dira:

a) Araudia onartzea.

b) Bere elkarteari edo erakundeari Kontseiluaren edukien berri ematea.

c) Bileretan hartutako konpromisoak betetzea.

*9. artikulua. Funtzionamendua.*

1. Kontseiluak, duen izaeragatik, proposamenak egin ahal izango dizkio, Udalaren organigramari jarraiki, dagokion Batzorde Informatzaileari. Batzordeak, proposamenak organo eskudunei helaraziko dizkie, eta proposamenak ezesten badira, erabaki horren inguruko erantzunak idatziz bidaliko dizkio Kontseiluari.

— Convocar las reuniones del Consejo y presidirlas.

— Elevar a la Comisión informativa que corresponda según el organigrama del Ayuntamiento las propuestas realizadas por el Consejo.

— Informar al Consejo sobre el desarrollo de sus propuestas.

— Canalizar y dirigir los debates.

— La vicepresidencia.

Una participante del Consejo, elegida de entre las partícipes que lo forman (integrante de alguna asociación o persona que participe a título individual). Su nombramiento se hará o renovará cada año en el Consejo, por consenso o por mayoría simple.

Funciones:

— Representar al Consejo ante el municipio, en el caso de que la/el presidenta/e no pueda desempeñar esa función o se decida en el Consejo que lo hagan de manera conjunta.

— Convocar las reuniones del Consejo y presidirlas, en el caso de que la/el presidenta/e no pueda desempeñar esa función.

— Preparar y enviar las convocatorias de reunión, en el caso de que la/el secretaria/o no pueda desempeñar esa función.

— Levantar el acta de las reuniones, en el caso de que la/el secretaria/o no pueda desempeñar esa función.

— Canalizar y dirigir los debates, en caso de que sea necesario y la/ el presidenta/e no pueda desempeñar esa función.

— Llevar y defender las propuestas del Consejo en la Comisión informativa que corresponda según el organigrama del Ayuntamiento, cuando el tema o la situación lo requiera.

— La Secretaría.

Recaerá en la técnica municipal del área. En ejercicio de la Secretaría deberá:

a) Confeccionar y enviar las convocatorias de las reuniones.

b) Levantar acta de las sesiones del Consejo y emitir certificaciones de los acuerdos.

c) Llevar de forma actualizada el Registro de los miembros y representantes del Consejo, así como de las altas y bajas.

d) Además de sus funciones como técnica del área.

— Las representantes de Asociaciones y Entidades.

Podrán participar dos mujeres por cada asociación o entidad.

Su participación en el Consejo implica:

a) Aceptación de la normativa.

b) Informar a su Asociación o Entidad sobre los contenidos del Consejo.

c) Cumplir los compromisos acordados en las reuniones.

*Artículo 9. Funcionamiento.*

1. Por su naturaleza el Consejo tiene capacidad de realizar propuestas a la Comisión informativa que corresponda según el organigrama del Ayuntamiento, quien cursará la misma a los órganos competentes, y en caso de desestimación, dará una repuesta por escrito al Consejo sobre los motivos de la misma.

2. Proposamenak hartutako akordioen bidez egingo dira. Akordioak ez dira lotesleak izango Udalarentzat; horretarako mekanismorik egokiena adostasunarena izango da. Hala eta guztiz ere, proposamenak bozkatu egingo dira.

3. Kontseilua eratzeko baliozkoa izango den quoruma ondorengoa izango da: Kideen erdia gehi bat.

4. Adostasunik lortzen ez baldin bada, Udalaren organigramari jarraiki, dagokion Batzorde Informatzailearen bidaltzen zaizkion proposamenen inguruko akordioak bertaratutakoen gehiengo sinplez hartuko dira.

5. Botoa pertsonala izango da. Erakundeen ordezkarien botoak bakarrik eskuordetu ahal izango dira. Botoak erakunde horretako beste pertsona bati eskuordetuko zaizkio, eta boto bata bakarrik eskuordetu ahal izango da erakundeko.

6. Bilera guztien akta egin beharko da. Aktetan, bertaratutakoen izen-abizenak, hasiera eta bukaera orduak, aztertutako gaiak eta hartutako erabakiak jaso beharko dira. Beharrezkoa izanez gero, bozketen emaitzak jasota utziko dira.

*10 artikulua. Deialdia.*

1. Bilera deiak idatziz egingo dira, 7 eguneko aurrerapenarekin. Bertan, aztergaiak zehaztuko dira, eta aurreko bilerari dagokion akta erantsiko da.

2. Egun finko bat ezarriko da, hilean behin ohiko bilera egiteko. Gutxienez, 10 bilera egingo dira urtean. Bilera bakoitzean, ondorengo bileraren eguna erabakiko da.

3. Ohiko bilerez gain, ezohiko bilerak egin ahal izango dira, baldin eta egokitzat jotzen bada.

*11. artikulua. Publizitatea.*

1. Emakumeen arloko politikak bideratzeko Udalak egiten dituen jarduerak udal-titularitatekoak izango dira; hortaz, Udalaren, eta hala badagokio, jarduera horren ardura duen sailaren izenak aipatu beharko dira.

2. Udalaren Ekintza Planean aurreikusitako ekintzei edo helburuei buruzko jarduerak egiten badira, gainera, Planaren logotipoa jarri beharko da.

3. Jarduerak Emakumeen Kontseiluak egin duen proposamen baten ondorioz egiten badira, Kontseiluaren Partaidetza aipatu beharko da, ordezkatutako erakundeen izena zehaztu gabe.

4. Jardueren antolakuntzan elkarteek edo erakundeek parte hartzen baldin badute, horien izenak aipatu beharko dira berariaz.

*12. artikulua. Ordezkaritza publikoa.*

1. Kontseiluaren ordezkaritza publiko instituzionala lehendakariaren esku egongo da. Lehendakariak ezin badu, ordezkaritza hori lehendakariordearen esku egongo da.

2. Jarduerak edo bestelako ekitaldiak, hau da, Udalak Kontseiluaren partaidetzarekin antolatu dituenak, hedabideen aurrean aurkezten direnean, Lehendakariak ez ezik, Lehendakariordeak edo partaideek demokratikoki hautatu duten Kontseiluko beste kideren batek parte hartu ahal izango dute. Hori dela-eta, Kontseiluko bileran berariaz eman beharko da horren berri.

3. Emakumeek beste udal batzorde batzuetako lantaldeetan edo bestelako lantaldeetan parte har dezatela eskatzen denean, ordezkaria izendatuko da Kontseiluaren akordioaren bitartez.

2. La realización de las propuestas se realizará mediante la toma de acuerdos, no vinculantes para la Administración Municipal, para ello el mecanismo idóneo es el consenso. No obstante, las propuestas se sometarán a votación.

3. El Quórum necesario para la válida constitución del Consejo será de la mitad más una de sus miembros.

4. Si no se alcanzara el consenso, los acuerdos de propuesta a la Comisión informativa que corresponda según el organigrama del Ayuntamiento se adoptarán por mayoría simple de las asistentes.

5. El voto es personal y solo podrá ser delegado por parte de los representantes de las asociaciones y entidades a otra persona de dicha entidad, y solo se admitirá un voto por entidad.

6. Se levantará acta de cada reunión, donde se recogerán los nombres de quienes asisten, hora de inicio y final, temas tratados y decisiones adoptadas. Si es necesario, se dejará constancia de los resultados de las votaciones.

*Artículo 10. Convocatoria.*

1. Las convocatorias de reunión se realizaran con una antelación de 7 días por escrito, donde se hará constar el orden del día, y se adjuntará el acta de la reunión anterior.

2. Se establecerá un día fijo una vez al mes como fecha de reunión ordinaria. Se realizarán al menos 10 reuniones al año. En cada reunión se acordará la fecha de la siguiente.

3. Además de las reuniones ordinarias, se podrán celebrar reuniones extraordinarias, siempre que se considere oportuno.

*Artículo 11. Publicidad.*

1. Las actividades realizadas por el Ayuntamiento para el desarrollo de las políticas sectoriales de la mujer son de titularidad municipal, por lo que únicamente deberá constar su nombre, y en su caso el del departamento responsable de las mismas.

2. Cuando las actividades se refieran a acciones u objetivos contemplados en el Plan de Acción Municipal, se hará constar además el logotipo del mismo.

3. Cuando las actividades procedan de una propuesta emitida por el Consejo de Mujeres, se hará constar la participación del mismo, sin especificar el nombre de las entidades representadas.

4.Cuando en la organización de las actividades participen las asociaciones o entidades se hará constar específicamente el nombre de la/s misma/s.

*Artículo 12. Representación pública.*

1. La representación institucional pública del Consejo recaerá en la persona que ejerce la presidencia o en la vicepresidencia, en caso de imposibilidad por parte de la presidencia.

2. En la presentación ante los medios de comunicación u otros eventos organizados por el Ayuntamiento en los que participe el Consejo, podrán participar, además de la Presidenta, la Vicepresidenta u otra componente del Consejo, elegida democráticamente por las participantes. Para ello, es preciso que haya sido explicitado en la reunión del Consejo.

3. Cuando se solicite la participación de las mujeres en grupos de trabajo de otras comisiones municipales o de otra índole, se designará la representante por acuerdo del Consejo.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.* Estatutu Arautzaile hauek Udalbatzarraren Osoko Bilkurak onartu beharko ditu, baliozkoak eta eraginkorrak izan daitezen.

*Bigarrena.* Estatutu hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hogei egunera sartuko dira indarrean.

*Hirugarrena.* Arau hauetan aurreikusi ez diren gauza guztietarako, Kontseilua Tokiko Araubidearen berezko araudian ezarritakoaren bidez arautuko da.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.* Los presentes Estatutos Reguladores deberán ser aprobados por el Pleno del Ayuntamiento de Elgoibar a los efectos de su validez y eficacia.

*Segunda.* La entrada en vigor de los presentes Estatutos surtirá efectos a los veinte días a partir de la publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Tercera.* En lo no previsto en estas normas reguladoras, el Consejo se regirá por lo dispuesto en la normativa propia del Régimen Local.